

VI. ANDOAIN LABURREAN

bideo lehiaketa

OINARRIAK 2020 – 2021

PARTE HARTZAILEAK

1.- 16 urte edo gehiago duen (2021eko abenduaren 31rako 16 urte betetzen dituztenak), profesionala ez den eta Andoainen bizi, ikasi edo lan egiten duen edozeinek parte har dezake lehiaketan.

LANEN EZAUGARRIAK

2.- Bideoak hizkuntz edukiren bat izatekotan (ahotsa, musika, elementu grafikoak...), honek euskarazkoa izan behar du nahitaez.

3.- Gaia librea da eta ez du zertan mugaturik Andoainera edo beste ezein eremu geografikotara. Nolanahi ere, Andoaingo herriari edo Andoaingo pertsona edo gertakari ezagun bati buruzko erreferentziaren bat jasotzea hobetsiko da, eta halakotzat joko da Andoainen grabatua izatea edo Andoain herriaren edo bertako pertsonaiaren baten aipamena nabarmentzea.

4.- Bideoek gehienez ere 10 minutuko iraupena izango dute (kredituak barne).

5.- Lanek lehiaketa honetarako sortuak izan behar dute.

6.- Edozein generotakoa izan daiteke lana: filmea, publizitate spota, elkarrizketa, dokumental laburra, bideoklipa, bideoarte, animazioa...

NOLA AURKEZTU LANAK?

7.- Bi modutan aurkeztu ahal izango dira:

- *My Air Bridge* (www.myairbridge.com) bidez bidali daitezke bideoak euskarazberbitzua@andoain.eus postara, edota Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkez daitezke, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:00etara.

Bideoarekin batera entregatu beharko da, baita ere, egilearen edo egileen izena eta abizenak, jaiotze data(k), Andoainekin du(t)en harremana (bizi, ikasi edota lan egin), kontaktua eta bideo laburraren izenburuaren berri ematen duen dokumentua.

8.- Lanak bakarkakoak edo taldekakoak izango dira eta partaide bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake, bakarka zein taldeka bada ere.

9.- Lanak aurkezteko baliatu daitezkeen artxibo motak honakoak dira: mov, mpeg, flv eta wmv. Nahi den bereizmena izan dezakete lanek. Aukeran, 1280 x 720 p (HD Ready) edo 1920 x 1080p (Full HD) bada, hobe.

10.- Antolatzaileek ez dituzte nahitaez bere egiten aurkeztu diren lanetan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota jasotako iritziak. Beraz, ez dute horien gaineko inolako erantzukizunik. Era berean, antolatzaileek lehiaketatik at utziko dituzte hirugarren pertsonen irudiari, ohoreari eta integritateari kalte egin dezaieketen lanak.

Informazio gehiago: www.andoainarraeuskaraz.eus webgunean, Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan (Urigain kultur etxea), edo Andoaingo Bideo eta Zine Eskolan.

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua: 943 300 831

euskarazerbitzua@andoain.eus

LANAK AURKEZTEKO EPEA

11.- 2021eko urtarrilaren 29a (ostirala) izango da lanak aurkezteko azken eguna.

SARIAK

12.- Hona lehiaketako sariak:

1. Saria: 400 euro.
2. Saria: 200 euro.
3. Saria: 100 euro.

Epaimahaiak sariren bat eman gabe uzteko ahalmena izango du.

EPAIMAHAIA

13.- Hiru adituk osatutako epaimahaiak erabakiko ditu sariak, betiere aurkeztutako lanen kalitate teknikoa, originaltasuna eta sormena kontuan hartuta. Honakoak dira epaimahaikideak:
XXXXXXXXXXXXXX

SARI BANAKETA

14.- Sari banaketako ekitaldia 2021eko otsailaren 18an izango da, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan, arratsaldeko 19:00etan. Bertan jakingo da epaimahaiaren erabakia eta bertan lan onenak proiektatuko dira.

BALDINTZETAN ALDAKETAK

15.- Aurreikusi gabeko gertakariren bat suertatuko balitz, lehiaketako oinarri hauek aldatzeko aukera antolatzaileen esku gelditzen da, hau da, Andoaingo Udaleko Euskararen Nomalizaziorako Batzordearen esku.

ANTOLATZAILEAK

Andoaingo Udaleko Euskara Saila eta ESCIVI (Andoaingo Zine eta Bideo Eskola)

Andoainen, Euskararen Nazioarteko Egunean, 2020ko abenduaren 3an.